



Zuzendari agurgarria:

Zurekin harremanetan jarri gara, honako honen berri emateko: **urriaren 11n**, Ikusmenaren Munduko Egunean, Lehen Hezkuntzako haurren ikusmen-egoera aztertzeke eta horretaz kontzientziatzeko **kanpainaren hirugarren edizioa hasiko da: Ikusi eta ikasi (Ver para Aprender)**. Helbide honetan ikusi eta deskargatu ahal izango dituzu bai xehetasun guztiak eta bai zuretzat prestatu ditugun material guztiak: www.verparaaprender.es.

Cogoratuko duzunez, jarduera hori 1.500 optikari optometrista boluntarioen laguntzari esker egiten da; izan ere, haien bulegoak eta ezagutzak ikastetxeen eskura jartzen dituzte, urtarrilaren 10era arte, ikasleen ikusmena urte berriari arrakastaz ekiteko eta gainditzeko prest dagoela bermatze aldera.

Gizarte-jarduera horrek aintzatespen publikoa izan du, eta, horregatik, **hainbat erakunderen laguntza dugu: Optikari Optometristen Elkargoen Kontseilu Nagusiarena; Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioarena, bere eskumenen esparruan; eta Espainiako kontseilaritza edo sail gehienena**. Kanpaina horretan, **Disney pertsonaiek komunikazio-elementuetan parte hartuko dute**. Halaber, irakurtzea sustatzeko planaren barruan egongo da kanpaina, eta ikasteko prozesuan ikusmenak duen garrantzia azalduko du. **Ikusi eta ikasi, ikusi eta irakurri, ikusi eta gozatu** izango da Correos Express bidez zure ikastetxera iritsiko den kanpainaren goiburua (**Ver para aprender, ver para leer, ver para disfrutar**). Familiei, berriz, spot baten bidez iritsiko zaie; Disney kanaletan eta Espainiako zinema-areto guztietan emango dute, hainbat laguntzailerik esker: 014Media, Yelmo, Kinesa, Cinépolis eta Cine Sur.

Jarduera horretan parte hartzea eskertuko dizugu; izan ere, dakizunez, **eskola-porrota, hirutik batean, diagnostikatu gabeko ikusmen-arazo batekin lotuta dago, eta Lehen Hezkuntzan ikusmen txarra duten haurrek emaitza akademiko okerragoak izaten dituzte**. Horrez gainera, kanpainaren goiburuaren ildotik, badakigu **ikusmen txarra duten 10 haurretik 7k gorroto dutela irakurtzea**, eta hori guztia irakurtzeko dituzten ikusmen-arazoen ondorio izan daiteke.

Ikastetxera poster batzuk bidali dizkizugu, ikasgeletan jartzeko, bai eta informazio-diptiko batzuk ere. Azken horiek Lehen Hezkuntzako haurren familiei helaraztea eskertuko genizuke, ekimenaren berri izan eta seme-alaben ikusmena azter dezaten. **Mezu hau familiei helaraztea ezinbestekoa da, uler dezaten ikusmen ona funtsezkoa dela haurren hezkuntza-garapenerako**.

Horrez gainera, zure esku jartzen dugu gure lantaldea, beste edozein jarduera osagarri behar izanez gero; esate baterako, guraso-elkarteei informazioa emateko hitzaldiren bat, haurrentzako tailerrak edo ikastetxean bertan ikusmena aztertzea, ahal izanez gero. Horretarako guztirako, zalantzarik gabe, jar zaitez gurekin harremanetan helbide honen bitartez: jennifer.garcia@visionyvida.org.

Aurtengoan ere elkarrekin, ikusmen txarrak ez dezan eskola-porrot kasu bakar bat ere eragin. Berriz ere, eskerrik asko!

Salvador Alsina Dalmau
Elkartearen lehendakaria

Juan Carlos Martínez Moral
Optikari-Optometristen Elkargoko
Kontseilu Nagusiaren lehendakaria



©Disney

*Gogorarazten dizugu Visión y Vida elkarte, 1955ean sortua, onura publikorako erakundea dela. Sofía erregina dugu elkartearen ohorezko lehendakaria. Gure helburu aipagarriena da ikusmen-osasun ona lortzea % 100ean, bizitzaren etapa guztietan. Kanpaina hau optikari optometrista boluntarioen lanari esker egiten da. Profesional horiek haurren eskura jartzen dituzte beren bulegoak, ikastetxeei edo familiei inolako betebeharrak komertzialik ezarri gabe.

Laguntzaileak:

